

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da, Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenesteko 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

Euskaraldiaren helburuak zabaltzeko unea iritsi da: ez da soilik ariketa-egun horietara mugatzen den dinamika, euskararen erabilera aktibatuzko mugimendua elikatu eta errotu nahi duen ekimena baizik.

Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia da hizkuntza-ohituren inertziak aldatzeko eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea; eta, horrez gain, entitateek ere euskaraz bizitzeko aukerak eta neurriak hartzea sustatu nahi da. Euskaraldiak, modu kolektibo eta sozial batean, tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta elkarlanean aritzea ahalbidetzen du, euskaraz bizitzea posible egingo duten neurriak eta espazioak sortuz.

Ariketa sozialaren laugarren edizioa, beraz, **2025eko maiatzaren 15etik 25era** bitartean izango da. Edizio berri honen leloak dioten bezala, **ELKAR MUGITUZ EGINGO DUGU**: denok batera, mugimendua sortu eta beste pauso bat eman dezagun euskararen erabileran.

Ariketa sozialean bi parte-hartze mota egongo dira. Alde batetik, herritarrak. Gutxienez euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako norbanakoek ahobizi eta belarriprest gisa hartuko dute parte, jokabide bat edo beste aukeraturik. Beste alde batetik, entitateak. Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte. Helburu nagusia izango da entitate horien baitako harremanetan euskararen erabilera handitzea.

Aurten ariketa sozialean parte hartuko duten entitateei eta belarriprest eta ahobiziei gonbidapen hau helarazi nahi diegu: beren egunerokoan edo jardunean euskararen erabilera areagotzeko urrats esanguratsuak eman ditzatela, lehen hitza euskaraz eginez, elkarrizketa elebidunak ahalbidetuz; azken batean, euskaraz dakitenekin euskaraz eginez.

Gonbidapen honen helburua da norberaren inertzia linguistikoetan aldaketa praktikoak lortzea. Horretarako, partaide bakoitzak –izan herritar edo entitate– bere buruari euskararen erabilera areagotzeko zein urrats eman dezakeen galdetu, eta Euskaraldiak irauten duen hamaika egunetan urrats hori gauzatu eta jakinaraztea nahi dugu.

Hori dela eta, Pasaia Udalak honako hau adierazten du:

- Euskaraldia ekimena babesten duela eta herri bezala parte hartuko duela ariketan.
- Gizartean eta herrian bertan Euskaraldia sustatuko duela, ariketarako atxikimendu publikoa erakutsiz.
- Udalean euskararen alde urrats esanguratsuak eman eta ikusaraziko dituela.

Horregatik guztiengatik, herriko entitateei eta herritarrei Euskaraldian izena eman eta parte hartzeko gonbidapena egiten diegu ([www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)).

**Elkar mugituz egingo dugu!**